



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka IZAGIRRE BROSA

Haurdunaldi subrogatua fikzioan: errealitatetik urrun?

HASTAPENA

Gaia landu zuten lehen filmak “Haragashionna” (Koji Wakamatsu, 1968), Japoniakoa, eta “The Baby Maker” (James Bridges, 1970) izan ziren. Bien kasuan subrogazioaren arrazoia emakumeen antzutasuna zen. Ondoren nazionalitate eta ikuspegi desberdinetatik beste film batzuk iritsi ziren: Hego Koreatik “Sibaji” (“The Surrogate Woman”, Im Kwon-taek, 1987), Ingalaterratik “Firelight” (William Nicholson, 1987) edota Alemaniatik “The Handmaid’s Tale” (“Die Geschichte der Dienerin”, Volker Schlöndorff, 1990), esaterako.

GAIA GIDOIAREN ERDIGUNEAN

Jorratzen ari naizen gaia trama-
ren erdigunean kokatu dituz-
ten ikus-entzunezkoen artean

Denok dakizuen moduan azken asteotan beldurrezko film guztien gidoiak gaintitu dituen albiste zabaldu da. Hala da, bai, «Black Mirror» edo «The Handmaid’s Tale» tele-
saileko atal batetik irtenda dirudien Ana Obregon-en kasuaz ari naiz. Sarritan fikzioa bera baino latzagoa den errealitatea albo batera utziko dut, eta albiste hori aitzakia-
tzat hartuta, zinemak haurdunaldi subrogatuaren inguruko gaia nola jorratu duen aztertu dut azken egunotan. Gai honi buruzko film eta telesailak errealitatearen erre-
tratu fidela dira ala zuriegiak dira oraindik? Errealitatetik urrunegi kokatzen dira orain-
dik ere? Kritika edota hausnarketa gehiago behar da fikzioan?

honako hauek iruditzen zaizkit
aipagarriak.

The Handmaid’s Tale

HBO Max

Zientzia-fikzioaren ikuspegitik
eta etorkizuneko gizarte disto-
piko bat irudikatuz, subrogatu-
tako amatasuna ondoen eta
gordinen azaldu duen ekoizpe-

na da, zalantza izpirik gabe.
Margaret Atwood idazlearen
eleberrian oinarritua da: dikta-
dura fundamentalista moduko
bat ezarri da eta emakume gaz-
teak behartuak izan dira ohela-
gun gisa bizitzera beraien “jau-
nari” seme-alabak “emateko”.


AEBetako presidentearen
hilketaren eta Kongresuan
gehiengoa eskuratu ostean,
erregimen teokratiko bat eza-
rri da; hau da, buruzagi politi-

koak eta erlijiosoak bat datoz
eta erlijioak gobernuaren poli-
tikan eragin handia du. Hortik
aurrera, Ameriketako Estatu
Batuek ‘Gilead Errepublika’
izena hartuko dute. Gizarte
berri horretan, balio moderno
gehienak desagertu egin di-
ra. Gileaden hedatu den ugal-
kortasun arazo larria dela eta,
emakumea bigarren plano ba-
tera baztertuta izan da, objektu
huts bilakatzeraino, eta bere

obarioak bihurtu dira bere ba-
lio bakar.

“Black Mirror” eta batez ere
“Children of men” bezalako
kontakizun bikainetatik zuzenean
edaten duen istorio ilun eta gogor
honen protagonista June da. Elissabet Moss aktore
bikainak era zoragarrian gor-
puzturikoa, diktaduraren ha-
sierako fasean familia osoa
galdu duen emakumea dugu.

Aurreko bizitzako oroitzape-
nei eutsita bizi da, nahiz eta ja-
kin senideak berriro topatzeko
aukera oso urria dela. Bizirik
jarraitzeko gogoia tinko man-
tentzeko Junek (‘Offred’ berri-
zendatua) duen euskarri baka-
rra horixe da, ordea. Bere
“nagusien” kapritxoan men-
de, bizitza miserable eta gogor
baten lokatz nazkagarrian ha-
rrapaturik bizi baita.



Adam

Filmin & Amazon

Abla eta 8 urteko bere alaba
Warda Casablancan bizi dira,
eta gozotegi bat dute etxean.
Lan eta lan ibiltzen dira, baina,
ezustean, errutina hori hautsi-
ko duen norbait agertuko da:
Samia izena du, haurdun da-
go, eta lana eta etxea bilatzen
ari da. Zalantza beteta bada
ere, etxean hartuko dute.

Maryam Touzani zuzendari
marokoarrari hiru pertsonaia
aski zaizkio arreta handiz eta
zehaztasunez gaiari heltzeko;
haurdun dagoen neska gaztea,
gozotegi baten buru den alar-
guna eta haren alaba txikia.
Amatasunaz hitz egiten da fil-



mean, noski, baina baita gale-
ra onartzeaz ere. Marokoko
ama ezkongabeen estigma ere
jorratzen da, baita depresioa
eta horrek hazkuntzan dituen
ondorioak ere.

Melody

Filmin

Egoera ekonomiko kaskarrean
dagoen Melody izeneko neska
gazte baten istorioa azaltzen du
film honek. Bere ametsetako
proiektua edertasun-zentro bat
erostea den arren, helburu hori
bazterrean utzi beharko du. Bi-
zitzan egoera zailei aurre egin
dien emakumea da, eta orain-

goan beste zailtasun bat gehi-
tzea erabakiko du: alokairuko
ama izatea. Horrela Emily eza-
gutuko du, seme-alabarik izan
ezin duen neska ingeles abera-
tsa. Emily-ren plangintza zeha-
tza da oso: in vitro ernalketatik
hasi, Ukrainan erditu arte.

Sole

Filmin

Gaiari heltzeko moduari eta
tonuari dagokienez zalantzak
sortu dizkidan arren, “Sole”
izeneko Italiako ekoizpen hau
ere aukeratu dut, iruditzen
zaidalako eztabaidarako aba-
gunea eman dezakeela.

2019. urteko Veneziako Zine-
maldiko film irabazlea izanda-
ko honek Ermanno eta Lena-
ren istorioa azaltzen du. Er-
manno hogeitazazko urteko gazte
marjinala da eta lapurreta txi-
kietan lortzen duen diruari es-
ker bizi da. Fabio osabaren bi-
tartez Lena ezagutuko du,
haurdun dagoen Poloniako
neska gaztea. Zazpi hilabeteko
haurdun dago, Poloniatik Ita-
liara iritsi berria da, diruaren
truke umea emateko helbu-
ruz. Italian haurdunaldi su-
brogatua debekatua dagoenez,
beste irtenbide bat topatu
beharko dute.
Ikusteko film zaila dela
ohartarazi nahi dizuet, eta asi-



Lehen orrialdean,
haurdunaldi subrogatua
lehen aldiz landu zuten
bi filmen irudiak:
«Haragashionna» eta
«The Baby Maker».
Goiko irudietan,
aipatutakoa gai
nagusitzat hartu duten
hiru lan: «Adam»,
«Melody» eta «Sole».


milatzeko gogorra, baina ezin-
bestekoa iruditut zait zerren-
dan sartzea.

The Nest

Disney +

Bost atalez osaturiko minise-
rie honek ere heldu dio gaiari;
hori bai, ingelesek era honeta-
ko telesailetan hain berezkoa
duten thriller kutsua albo ba-
tera utzi gabe. Dani eta Emily-
ri buruzko istorioa azaltzen du,
aspalditik guraso izateko ame-
tsarekin dabilen bikoteari bu-
ruzkoa. Egun batean, Emilyk
hemezortzi urteko neska bat
ezagutuko du, Kaya. Bizimodu





ezegonkorra eta nahiko prekariora daraman neska gazteak haren bikotekidearen alokairuko sabela izatea onartuko du. Hasieratik guztia ondo doala dirudien arren, protagonisten moralitasuna gatazkan sartuko da eta desadostasunek eztanda eragingo dute azkenean. Entretenigarria da oso, eta gozatuko duzuela uste dut, baina atalak igaro ahala apur bat sinesgaitz bihurtzen dela aitortuko di-
zuet.

Sagrada Familia

Netflix

Amatasuna hainbat ikuspegi-
tatik erakusten du telesail bi-

txi honek. Manolo Caro mexi-
karraren eskutik ekarri zuen
Netflixek 2022an eta zuzenda-
riak berak aitortu zuen proiektu
honen ideia subrogatutako
haurdunaldiari buruzko lagun
arteko elkarrizketa batean sor-
tu zela.

Ustez lasaia den eta ezer ger-
tatzen ez den Madrilgo auzo
batean, lau emakumezko bizi-
lagunek adiskidetasun handia
sortuko dute, izendatzaile ko-
mun batekin: ama dira. Istorio
honetan ezer ez da dirudiena,
hainbat sekretu eta gidoi-bira-
keta ezkututzen ditu. Zergatik
aukeratu dudan hobeto uler-
tzeko telesailaren amaiera iku-
si beharko duzue.

La hija

Filmin & Movistar

Egoera apur bat desberdina
planteatzen du film honek: Ire-
neren istorioa kontatzen digu,
15 urteko nerabea da eta ara-
zoak dituzten adingabeentzako
zentro batean bizi da. Haurdun
geratu ondoren, Javierrekin –
zentroko hezitzaileetako bat-
itun bat egin du. Haurdunaldia
ezkutuan eramateko, Javierrek
berarekin eta bere emazte Ade-
larekin bizitzea eskainiko dio,
Jaengo mendilerroko paraje
isolatuan duten etxean. Tru-
kean, ordea, umea jaiotzen de-
nean bikoteari eman beharko
dio.

Ingalaterrako adibidearen
antzera, thriller iluna da hona-
ko hau, gordina, eta su mote-
lean kozinatzen den horieta-
koa, sinesgaitza batzuetan
baina entretenigarria.

GAIA ZEHARKA

Goazen orain pantaila txikian
gai hau atal jakin batzuetan
soilik, edo bestela zeharka, jo-
rratu duten zenbait adibidere-
kin:

Friends

HBO Max

“Friends”-i buruz esan beha-
rreko guztia esanda dagoen
arren, atal jakin batzuetan jo-
rratzen den gai korapilatsu
hau gutxitan aipatu dela irudi-
tzen zait. Hamar denboraldiak
eta 236 atalak behin eta berriz
ikusi ostean, buruz ezagutzen
ditugun pertsonaia, elkarriz-
keta eta sekuentziez josiriko
klasiko bilakatu da. Hala ere,
gogoratzen dituzu jarraian ai-
patuko ditudan ondorengo
uneak?

Phoebe Buffet izan zen, bi-
tartekeo ekonomikorik gabe,
anaiari laguntzeko, subroga-
zioaren praktika aurrera era-
man zuen pertsonaia. Gidoila-
riek erabaki zuten Lisa
Kudrowek gorpuzten zuen
pertsonaiak haurdun geratu

behar zuela, aktorea bizitza
errealean hala baitzegoen.

Phoeberen haurdunaldia
laugarren denboraldian izan
zen. Rachelek eta Monicak alo-
kairuko sabel gisa eskaintzeko
aukeraz ere hitz egin zuten,
eta horixe gertatu zitzaion
Monicari azken denboraldian.
Bera eta Chandler bikotekidea
ugalkortasun-arazoak zituzte-
la ohartu baitziren. Hala eta
guztiz ere, azkenean ez zen
gauzatu haurdunaldi subroga-
tua, bi haur biki adoptatu bai-
tzituzten.

Top of the lake: china girl

Rtve

Jane Campion zinemagile en-
tzutetsuak sorturiko minise-
riea. Hasieran aipatu dudan
“The Handmaid’s Tale”-ren ka-
suan bezala, Elisabeth Moss
telesail bikain honetako prota-
gonistetako bat da. Emaku-
meak esplotatzeko praktika gi-
sa, alokairuko sabelen gaia
aztertzen duen beste serie bat.
Kasu honetan, telesailaren bi-
garren denboraldia Australian
girotuta dago, eta Thailandia-
ko sexu-langileak erakusten
ditu. Emakume thailandiar
horiek, gainera, Sydneyko bi-
kote aberatsen haurdun gisa
erabiltzen dira.



Ezkerreko hiru
argazkietan «The Nest»
miniseriea, «Sagrada
Familia» telesaila eta
«La hija» filmea;
eskuinean «Friends»
telesail famatuan
Phoebe Buffet
pertsonaia haurdun
dagoen ataletako bat.

